



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2018KO UZTAILA

Uztaila oso hezea izan zen mediterraneo isurialdean eta kostaldean, eta ohikoa Kantauriko bailaretan. Eguraldia EAetik pasa ziren eta bertan garatu ziren trumoi-ekaitzek baldintzatu zuten. Temperaturari dagokionez, oso beroa izan zen, bereziki minimoengatik. Gauzak horrela izatearen arrazoiak: batetik, Groenlandia, Britainiar uharteak eta Eskandinavia artean egon zen antizikloi indartsuak sortutako blokeoa, eta, bestetik Kantauriko uraren temperaturaren anomalia positiboa izan ziren. Muturreko meteorologiari dagokionez, egoera gehienak prezipitazio handiagatik izan ziren; hainbat egunetan zaparrada oso handiak bota zituen. Hilaren 12ko zaparradak uztaileko errekorretik oso gertu ibili ziren. Batzuetan zaparradekin batera tamaina handiko txingor aleak bota zituen, adibidez Arabako Lautadaren ekialdean hilaren 4an. Egun hartan, Legaireko basoan, Entziako Arabako mendilerroan, pagadi bat erabat txikitu zuen tornado suntsitzailea ere gertatu zen.

### Prezipitazioa

Uztaila oso hezea izan zen mediterraneo isurialdean eta kostaldean, eta ohikoa Kantauriko bailaretan. Banaketa espaziala urte sasoi horretarako ezohikoa izan zen, izan ere hilabete osoan botatuko zaparrada trumoitsu ugariak erabat baldintzatu zuten kalifikazioa. Euri gehien ekialdeko kostaldean egin zuen (Oiartzun 156.2 mm, Behobia 148.5 mm, Aizarnazabal 147 mm) eta baita Goierri ere (Agauntza 146.4 mm, Zegama 137.2 mm, Ordizia 113.7 mm). Bizkaiko kostaldeko zenbait tokitan ere kantitate esanguratsuak neurtu ziren (Oleta 112.7 mm, Matxitxako 112.1 mm) eta baita Ebro ondoko eskualdetan ere (Espejo 103.7 mm, Moreda 101.6 mm). Azken zonalde horretako balioak oso deigarriak izan ziren, izan ere, ohikoa denaren bikoitza jaso zen. Balio baxuenak Bilbo Handian eta Enkarterrietan neurtu ziren (Deusto 24.6 mm, Sodupe 26.7 mm, Ordunte 26.9 mm, Balmaseda 29.9 mm); eskualde horiek batzuetan ekaitzen ibilbideetatik urrunago egoten dira.

Kantauri isurialdean 10-12 egunetan egin zuen euria, gutxi gorabehera ohikoa dena baino 2 egun gehiagotan, eta hilabete osoan banatu ziren euri-egunak. Mediterraneo isurialdean, 9 inguru izan ziren, ohikoa denaren bikoitza baino gehiago, eta lehenengo hamabostaldian pilatu ziren euri-egunak. Laburbilduz, uztaila euritsua izan zen, bereziki EAEn hegoaldean.

La euri-egun guztietan prezipitazioa oso ugaria izan zen, baina betiere puntuala, lehen aipatu bezala, prezipitazioa batez ere konbektiboa izan zelako. Izan ere, uztailan igorri ziren abisu eta alerta gehienak prezipitazio handiagatik izan ziren.

Bost egunetan zaparrada handiak bota zituen eta beste lauetan oso handiak. Ondoren aipatzen dira esanguratsuenak, guztiak lehenengo hamabostaldian jasotakoak dira.



Hilaren 1ean, azken orduetan, ekaitz lerro bat Burgosetik sartu zen eta Arabako bailaretatik Markina-Ondarroaraino dauden eskualdeetan eragin zuen, zaparradak puntualki oso handiak izan ziren (Oleta 35.6 mm/h, Altube 28.7 mm/h, Amorebieta 25.9 mm/h, Berna 24.7 mm/h, Espejo 24.4 mm/h).

Hilaren 4an, ekaitz-guneak garatu ziren, eta Arabako Lautadan eta Arabako Errioxan nahikoa geldikor geratu ziren. Zaparrada handiak utzi zituzten, ia oso handiak (Arkauti 29.4 mm/h, Moreda 24.6 mm/h, Ilarduia 23.1 mm/h, Salvatierra 20.4 mm/h). Arabako Lautadaren ekialdean txingor ale handiak jaso ziren, 3 cm inguruko diametrokoak.

Hilaren 12ko goizaldean, ekaitz lerro batek Arabako kantauri isurialdean izan zuen eragina eta zaparraden intentsitatea harrigarria izan zen. Ondoren zaparradak Gipuzkoako kostaldera mugitu ziren (Gardea 46.9 mm/h, Areta 40.9 mm/h, Orduña 22.2 mm/h, Lasarte 20.2 mm/h). Gardeako datua Euskalmeteko sarean inoiz neurturiko zazpigarren baliorik altuena izan zen, eta uztaileko datuak kontuan izanik, bigarrena.

Hilaren 13an eta 14an, ekaitzek batez ere Goierri izan zuten eragina, eta kalteak eragin zituzten, lehenengo Ataunen, eta ondoren Ordizian, garajeak urez bete ziren eta zenbait azpiegituretan kalteak eragin zituzten (Agauntza 24.6 mm/h, Ordizia 19.3 mm/h, Kanpezu 17.5 mm/h hilaren 13an; Agauntza 35.7 mm/h, Zegama 30.2 mm/h, Amundarain 27.3 mm/h, Ilarduia 20.4 mm/h hilaren 14an).

Hilaren 15ean, aurreko egunetan bezala, goiza lasaia izan zen, giro eguzkitsuarekin. Hala ere, arratsaldean, ekaitz mardulak bota zituen mediterraneo isurialde osoan eta Gipuzkoa hegoaldean; lerro oso aktibo batek Arabako lautada zeharkatu zuen (Espejo 33.1 mm/h, Abetxuko 24.5 mm/h, Ordizia 23.2 mm/h).

**Taula 1: Azken urteetan uztailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	24.6	32.0	33.4	26.2	60.8	21.4	15.8	69.0	16.3	26.8
Lasarte	80.0	64.6	68.0	48.8	116.4	44.8	53.4	135.9	25.4	58.7
Arrasate	54.5	34.6	39.9	20	101.3	13.4	17.7	92.9	8.4	23.3
Abetxuko	64.1	10.9	9.3	20.9	37.9	41.8	14.2	30.3	4.7	14.4
Párganos	59.6	31.8	6.9	34.9	20.9	52.3	15.1	14.6	4.3	0

## Temperatura



Batez besteko tenperaturaren arabera, uztaila oso beroa izan zen, Araba hegoaldean izan ezik, bertan beroa izan zen. Kostaldean, 21-22 °C ingurukoa izan zen batez besteko tenperatura eta Arabako Lautadan ozta-ozta gainditu zen 20 °C-ren muga, hau da, 1981-2010 ohiko aldiaren batez bestekoa baino gutxi gorabehera 1.5 °C altuagoa EAE osorako. Azken urteekin alderatuz gero, laugarren uztailik beroena izan zen, zerrendan 2006 urtekoa dago lehenengo postuan.

Egun beroak hotzak baino dezente gehiago izan ziren. Egun hotzak hilaren 19a eta 22a izan ziren, baten bat gehiago kostaldean.

Ez zen maximo esanguratsurik neurtu, izan ere, ez zen horregatik abisurik igorri. Tenperaturak ia ez zuen 30 °C-ren muga gainditu, Ebro ibarrean izan ezik, bertan askotan gainditu zuen, bereziki hilaren 23tik aurrera. Egun hura beroena izan zen EAE osoan; Araba hegoaldeko eta Enkarterrietako zenbait estaziotan 33 °C-tik gorako balioak neurtu ziren (Moreda 33.5 °C, Zambrana 33.1 °C, Aranguren 33.1 °C, Subijana °C). Hala ere, baliorik altuena hilaren 30ean neurtu zen, Moredan 35.1 °C, soilik egun hartan gainditu ziren 35 °C-ak.

Uztaileko kalifikazioa tenperatura minimoek baldintzatu zuten, izan ere nahiko altuak izan ziren. Kostaldean termometroa egun askotan ez zen 20 °C-tik jaitsi, hau da, gauak tropikalak izan ziren. Kantauri itsasoko uraren berotzeak zerikusi handia izan zuen horretan, izan ere ohikoa dena baino tenperatura altuagoak neurtu ziren hilabete osoan. Hilaren 25ean, beste toki batzuetan ere gaua tropikala izan zen, kantauriko bailaretan hain zuzen (Galindo 21.8 °C, Zarautz 21.2 °C, Iurreta 20.3 °C, Belauntza 20.3 °C). Aurreko gauean, Ebro ibarrean ere minimoa altua izan zen (Moreda 20.2 °C).

Intsolazioa ez zen ohiko baliotik gehiegi aldendu; zertxobait altuagoa izan zen ekialdeko kostaldean eta Araba hegoaldean, eta zertxobait baxuagoa mendebaldeko kostaldean.

**Taula 2: Uztailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	21.8	19.8	21.1	21.6	20.3	22.1	19.7	19.2	20.7	20.8
Lasarte	21.2	19.8	19.8	20.8	19.2	21.7	19.0	18.2	20.1	20.2
Arrasate	20.1	19.4	19.0	20.1	18.2	21.4	18.1	17.1	19.3	19.8
Abetxuko	20.1	19.5	19.3	20.7	18.5	21.3	18.1	17.1	19.3	19.5
Páganos	20.9	21.1	20.8	22.3	19.4	22.4	19.4	18.9	21.3	21.2

## Haizea

Lehenengo eta laugarren koadranteko fluxuak nagusitu ziren. Haizea, oro har, ahula izan zen, zenbait momentutan tokian tokikoa, eta kostaldean brisa altxatu zen.



Haize-bolada handienak ekaitzek eragin zituzten. Hilaren 1ean Beluntzan ufada esanguratsuak izan ziren (110.9 km/h), hilaren 14an Eturan (96.8 km/h) eta Ilarduian (81.4 km/h), eta 15ean Ordizian (88.9 km/h).

Aipamen berezia merezi du hilaren 4an, eguerdian, sortutako tornadoak Entzian, Araban. Tornadoak 7 km egin zituen eta azken 2 km-tan gutxi gorabehera Legaire basoko milaka pago suntsitu zituen. Zaila da haizearen abiadura zehaztea, baina kalteak ikusita, seguruenik haize-boladek aise gainditu zuten 180 km/h-ko abiadura.

## Analisia

### Uztailaren 1a

Hilabetearen hasieran omega itxurako antizikloi indartsu batek blokeo egoera eragin zuen, eta dortsalaren ardatza Aljeriatik Britainiar uharteetaraino luzatu zen. Mendebaldean goi-geruzetan depresio askatu bat kokatu zen eta Iberiar penintsularen mendebaldean ezegonkortasun handia eragin zuen. Gauzak horrela, ekaitz handiak garatu ziren, arratsaldean Bilbo inguruan txingorra egin zuen eta gauean hegoaldeko iparraldera ekaitz oso handiak mugitu ziren Araban eraginez. 850 hPa-eko mailan, tenperatura 20 °C ingurukoa izan zen, barnealdean bero egin zuen eta balio maximoek aise gainditu zuten 30 °C-ren muga.

### Uztailaren 2tik 3ra

Hilaren 2a eta 3a egun lasaiak izan ziren, goizetan zerua hodei gutxirekin egon zen eta arratsaldetan eta gauetan hodeiak ugariagoak izan ziren, bereziki 3an. Orduan, kantauri isurialdean zerua behe-hodeiekin estalita geratu zen eta tenperaturak behera egin zuen.

### Uztailaren 4a

Blokeo antiziklonikoa desegin zen. Depresio askatu txikia ekialderantz mugitzen zihoan heinean, Kantauri itsasotik ezegonkortasun larri batzuk eta fronte okluiditu txikiak iritsi ziren giroa asko ezegonkortuz; goizetik aurrera zaparrada trumoiatsuak bota zituen. Arratsaldean, Burgosetik iritsi zen ekaitz larri eraginkor batek Araba eta Gipuzkoa hegoaldea zeharkatu zituen; zaparrada handiak eta golf piloten tamainako txingor aleak utzi zituen. Depresio askatua igaro ostean, haizea ipar-mendebaldetik finkatu zen eta ipar isurialdean zaparradak utzi zituen, hilaren 4ko gauean eta hilaren 5eko goizaldean, zenbait tokitan handiak izan ziren.

### Uztailaren 5etik 6ra

Kantauri itsasotik antizikloia ziri moduan sartu zen eta eguraldiak hobera egin zuen. Iparraldeko haizeari esker tenperatura ez zen larregi igo.



### Uztailaren 7tik 11ra

Hilaren 7tik aurrera, presio altuak Atlantikotik Eskandinaviaraino zabaldu ziren, eta iberiar penintsularen barnealdean udan ohikoa den baxu termikoa garatu zen. Horrela, iparraldeko haizea nagusitu zen eta tenperatura sasoi honetan ohikoak diren balioetan mugitu zen. Eguraldi eguzkitsuarekin jarraitu genuen eta tenperaturak gora egin arren, bereziki barnealdean, ezegonkortasun lerroak iritsi ziren eta nukleo konbektiboak garatu ziren. Arabara iritsi ziren Burgos iparraldetik eta zaparrada batzuk utzi zituzten hilaren 8an eta 11n. Hilaren 10ean eta 11n, lurraldearen ipar partean behe-hodeiak nagusitu ziren.

### Uztailaren 12tik 16ra

Atlantikoan aska nahikoa sakona garatu zen eta Penintsularen mendebaldean kokatu zen. Lurrazalean, baxu termikoa sortu zen berriro ere Penintsularen erdialdean, fronte okluito eta ezegonkortasun lerro batzuekin. Hilaren 12ko lehen orduetatik ezegonkortasuna izan zen nagusi, zaparrada eta ekaitz handiak bota zituen, zenbait tokitan oso handiak. Hilaren 13an eta 14an, ekaitzek eragin handia izan zuten Goierriin, Gipuzkoan. Aurreko egunetan bezala, hilaren 15eko goiza lasaia izan zen eta giroa eguzkitsua. Arratsaldean, aldiz, ekaitzek gogor eragin zuten Araban. Lerro oso eraginkor batek Arabako Lautada zeharkatu zuen eta txingorra eta zaparrada handiak utzi zituen. Aska ekialderantz mugitu zen ondoren, eta hilaren 16an, haizea ipar-mendebaldera aldatu zen, bai goi-geruzetan eta baita lurrazalean ere. Ezegonkortasuna ipar partera mugatu zen, bereziki kostaldera; goizean zaparradak handiak izan ziren zenbait tokitan, bereziki Gipuzkoa ipar-ekialdean.

### Uztailaren 17a

Hilaren 17an, antizikloia Kantauri itsasotik ziri moduan sartu zen. Eguraldiak egonkortzera egin zuen, zerua hodei gutxirekin geratu zen eta ipar isurialdeko zenbait tokitan behe-hodeiak agertu ziren.

### Uztailaren 18tik 21era

Egun haietan ipar/ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen eta kantauri isurialde osoan behe-hodeiak pilatu zituen. Hilaren 20an, gainera, 500 hPa-eko mailan, aska txiki bat sortu zen, erdigunean aire nahikoa hotzarekin; lurrazalean fronte hotz ahul bat sortu zen, goi-geruzako ezegonkortasunaren isla moduan, eta kantauri isurialdean zaparradak bota zituen. Bizkaiko zenbait tokitan, zaparradak handiak izan ziren, eta Gipuzkoako zenbait lekutan pilatutako prezipitazioa oso ugaria izan zen.

### Uztailaren 22tik 23ra

Hilaren 22tik aurrera egoerak hobera egin zuen. Atlantikoko presio altuak Europa erdialderaino zabaldu ziren, 500 hPa-eko mailan sorturiko dortsal baten isla gisa. Hilaren 22an eta 23an, zerua urdin egon zen egun osoan eta tenperatura nabarmen igo zen, bai lurrazalean, eta baita 850 hPa-eko mailan ere, 17 °C inguruko balioekin.



### Uztailaren 24tik 27ra

Presio altuak itxuragabetu egin ziren, Penintsularen erdialdean baxu termiko txiki bat sortu zelako. Haizea iparraldera aldatu zen, ondorioz, arratsalde-gauean behe-hodeiak sortu ziren kantauri isurialdean. Hilaren 27ra arte hodeiak ugariak izan ziren kantauri isurialdean, tarteka zirimiria egin zuen, baina egunaren erdiko orduetan ostarte zabalak ireki ziren. Mediterraneo isurialdean, aldiz, zerua hodei gutxirekin egon zen eta temperatura asko igo zen Araba hegoaldean, 30-34 °C inguruko balioak neurtu ziren. Deigarria da 850 hPa-eko mailan sortu zen gradiente handia. Horrela, Nafarroa hegoaldean eta Aragoi temperatura 25 °C-ra iritsi zen, baina Kantauri itsasoan 13-15 °C ingurukoak izan zen. Hala ere, kantauri isurialdeko temperatura minimoak esanguratsuak izan ziren egun horietan, balio altuak neurtu ziren gauetan behe-hodeiak egon zirelako. Hilaren 26tik 27ra bitartean, ezegonkortasun larri bat iritsi zen hegoaldetik eta, ondorioz, Gipuzkoa barnealdean ekaitzak garatu ziren. Bizkaiko kostaldera mugituz joan ziren eta Ermuan, Zaldibarren eta Bermeon txingorra utzi zuten.

### Uztailaren 28tik 31ra

Egoerak ildo beretik jarraitu zuen. Penintsularen hegoaldetik dortsal antiziklonikoa sartzen saiatu zen eta bere barnean baxu termikoa sortu zen. Aurreko egunekin alderatuz gero, ezberdintasuna Britainiar uharteen mendebaldean zirkulazioa askea zela izan zen. Lurrazalean, presio baxuko sistema bati loturiko fronteek kostaldea ukitu zuten eta hodei gehiago eta euri apur bat utzi zituzten hilaren 28an eta 31n.


## Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko uztailleko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako euri max l/m <sup>2</sup>	Euri- egunak.
Deusto	21.8	24.9	30.3	18.9	16.4	0	24.6	7.4	8
Lasarte	21.2	25.1	28.0	17.6	15.0	0	80.0	21.1	13
Arrasate	20.1	25.6	31.0	16.0	12.9	0	54.5	12.2	8
Abetxuko	20.1	27.4	31.7	14.3	10.7	0	64.1	26.9	7
Páganos	20.9	27.6	32.4	15.5	11.9	0	59.6	17.6	7




## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak






# Prezpitazioaren jokaera


**Behatutako prezpitazioa**  
*Precipitación observada*




**Prezpitazio normala**  
*Precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko desbideratzea**  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko portzentaia**  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*







## Muturreko egoerak

**Uztailean 12 abisu hori igorri ziren, 10 prezipitazio handiagatik eta 2 olatuen altueragatik nabigaziorako.**

**Horrez gain, 2 alerta laranja igorri ziren prezipitazio handiagatik.**

- Hilaren 1ean, goizaldean, Arabako Errioxatik ekaitzak sartu ziren eta EAEn ekialdea zeharkatu zuten. Eguerdian, Burgos iparraldean eta baita EAEn berriak sortu ziren eta bereziki mendebaldean eragin zuten. Azken orduetan, beste ekaitz lerro bat Burgos iparraldetik sartu zen, eta Arabako bailaretatik hasi eta Markina-Ondarroara bitarteko eskualdeetan eragin zuen, zenbait tokitan zaparrada oso handiak izan ziren.

Estazioa	mm/h	hh:mm	Estazioa	mm/h	hh:mm
Oleta	35.6	23:40	Oiz	20.5	23:20
Altube	28.7	22:20	Iurreta	19.1	23:10
Amorebieta	25.9	22:30	Igorre	18.8	22:50
Berna	24.7	22:30	Iruzubieta	18.6	23:20
Espejo	24.4	21:30	Matxitxako	17.5	14:10
Derio	22.2	13:10	Gorbea	16.7	22:40
Mañaria	21.6	23:10	Abusu	16	13:10
Mungia	21.4	13:30	Urkizu	15.1	23:00
Sarria	20.6	22:30	---	---	---

*Igandea, hilak 1: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 1ean, puntualki 100 km/h-tik gorako haize-bolada neurtu zen Beluntzako estazioan (110.9 km/h 21:30ean). Ekaitz batek eragin zuen.
- Hilaren 4an, mesetaren iparraldean eta baita EAEn ere ekaitzak garatu ziren eta batez ere barnealdean izan zuten eragina. Arabako Lautadan eta Arabako Errioxan nahikoa geldikor egon ziren eta zaparrada handiak bota zituen, ia oso handiak. Zaparrada trumoitsuekin batera txingorra bota zuen, Arabako Lautadaren ekialdean tamaina handiko aleak ikusi ziren, 3 cm inguruko diametroarekin; laborantzetan, kotxeetan, eta abarretan kalteak eragin zituzten.

Estazioa	mm/h	hh:mm
Arkauti	29.4	14:40
Moreda	24.6	15:10
Ilarduia	23.1	13:50
Salvatierra	20.4	13:50
Kanpezu	16.2	15:50
Iruzubieta	15.7	14:40

*Asteazkena, hilak 4: Alerta Laranja prezipitazio handiagatik 13etatik 21etara ordu lokala.*



- Hilaren 5ean, goizaldean, itsasaldetik zaparradak sartu ziren, batez ere Gipuzkoa ipar-ekialdera (Behobia 15.4 mm/h 01:50, Oiartzun 10.1 mm/h 00:50ean).
- Hilaren 12an, goizaldean, EAeren mendebaldetik ekaitz lerro bat sartu zen; Araba eta Bizkaia arteko isurialdeen banalerroan barrena mugitu zen eta ondoren Gipuzkoako kostaldera. Zaparrada oso handiak bota zituen, modu harrigarrian Arabako kantauri isurialdean. Izan ere, Gardean ordubetean 46.9 mm/h pilatu ziren, Euskalmeteko sarean inoiz jasotako zazpigarren neurketarik altuena izan zen, eta bigarrena uztailaren kasuan (Gardean 2011/07/02an 53.1 mm/h pilatu ziren).

Estazioa	mm/h	hh:mm	Estazioa	mm/h	hh:mm
Gardea	46.9	5:10	Zarautz	17.9	8:20
Areta	40.9	5:30	Elorrio	17.5	7:00
Orduña	22.2	5:30	Aranguren	17.3	4:50
Lasarte	20.2	8:20	Urkiola	17	6:40
Aizarnazabal	19.1	8:00	Ordunte	16.4	4:00
Matxitxako	18.3	4:20	Aixola	15.2	7:10

*Osteguna, hilak 12: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian 06etatik 11etara ordu lokala.*

- Hilaren 13an, goizaldean, ekaitz lerro batek EAE zeharkatu zuen Araba hego-mendebaldetik Gipuzkoaraino eta zaparrada ertainak bota zituen. Arratsaldean hego-mendebaldetik beste ekaitz batzuk sartu ziren; ugariago eta intentsitate handiagoarekin egin zuen euria, eta hurrengo eguneko goizaldera arte ez zuen atertu.

Estazioa	mm/h	hh:mm	Estazioa	mm/h	hh:mm
Agauntza	24.6	22:40	Urkulu	12.8	6:10
Ordizia	19.3	22:50	Berastegi	11.5	7:00
Kanpezu	17.5	17:00	Iturrieta	11.4	4:30
Alegia	15.6	23:00	Ameraun	10.5	23:10
Amundarain	15.5	22:40	Kapildui	10.5	22:50
Zegama	14.5	22:30	Estanda	10.4	22:50
Araxes	13.9	6:50	Oñati	10.3	6:40
Belauntza	13.6	6:50	Etura	8.3	23:50

*Ostirala, hilak 13: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 16etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 14an, Burgos iparraldean ekaitzak garatu ziren eta mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuten EAE, Goierri zaparrada oso handiak utziz. Horrez gain, Goierriko zenbait tokitan egun osoan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Agauntza 64.4 mm, Amundarain 49.6 mm, Zegama 44.4 mm).



Estazioa	mm/h	hh:mm	Estazioa	mm/h	hh:mm
Agautza	35.7	18:40	Berastegi	10.9	21:10
Zegama	30.2	18:40	Araxes	10.8	21:00
Amundarain	27.3	18:40	Zarautz	10.7	23:10
Ilarduia	20.4	18:30	Ameraun	10.3	21:20
Ordizia	15.8	20:30	Alegia	10.3	21:00
Kapildui	12.9	18:40	Tobillas	9.5	16:40

*Larunbata, hilak 14: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 17etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 14an, ekaitzek haize-bolada oso gogorrak eragin zituzten, 80 km/h-tik gorakoak Arabako Lautadan, haizeguneak ez diren tokietan (Etura 96.8 km/h 17:30ean, Ilarduia 81.4 km/h 18:20ean).
- Hilaren 15ean, aurreko egunetan bezala, goiza lasaia izan zen eta zerua hodei gutxirekin egon zen. Hala ere, arratsaldean ekaitzak handiak izan ziren mediterraneo isurialdean eta Gipuzkoa hegoaldean. Ekaitz lerro oso aktibo batek Arabako Lautada zeharkatu zuen eta zaparrada handiak eta oso handiak utzi zituen; txingorra ere bota zuen.

Estazioa	mm/h	hh:mm	Estazioa	mm/h	hh:mm
Espejo	33.1	17:30	Arkauti	15.4	18:00
Abetxuko	24.5	17:50	Araxes	14.5	16:50
Ordizia	23.2	16:20	Zaldiaran	13.5	17:40
Herrera	18.6	19:20	Alegria	13.3	18:20
Etura	18.1	18:10	Ilarduia	11.6	19:10
Tobillas	17.7	16:30	Zegama	11.3	16:00
Ozaeta	17	18:10	Alegia	11.3	16:40
Moreda	16.7	19:30	Salvatierra	11.1	18:40
Iturrieta	16.6	20:20	Subijana	10.8	17:10

*Igandea, hilak 15: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 17etatik 22etara ordu lokala.*

- Hilaren 15ean, Ordizian 80 km/h-tik gorako haize-bolada neurtu zen ekaitz bat igaro zenean (88.9 km/h 16:10ean).
- Hilaren 16an, goizaldean, ekaitzak garatu ziren eta batez ere kostaldean eragin zuten.

Estazioa	mm/h	hh:mm
Oiartzun	19.9	4:40
Bidania	16.5	5:40
Behobia	15.4	12:40
Almike	13.2	10:30



Matxitxako	13.1	10:10
Oleta	9.9	5:00

*Astelehena, hilak 16: Alerta Laranja prezipitazio handiagatik kantauri isurialdean 03etatik 12etara ordu lokala.*

- Hilaren 18an, Iberiar penintsulan zegoen baxu termikoari loturiko ezegonkortasun larro bat Arabako Errioxatik sartu zen eta eguerdian zaparrada txikiak utzi zituen. Arratsaldean, ekaitzak garatu ziren Aizkorriko mendilerroaren inguruan eta nahikoa geldikor egon ziren (Zegama 13.6 mm/h).

*Asteazkena, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 16etatik 21etara ordu lokala.*

- Hilaren 20an, 500 hPa-eko mailan, aska txiki bat sortu zen, bere erdigunean aire nahikoa hotzarekin, eta lurrazalean fronte ahul bat garatu zen. Kantauri isurialdean zaparradak utzi zituen eta Bizkaiko zenbait tokitan handiak izan ziren. Oiartzunen, 24 orduan, 46 mm pilatu ziren.

Estazioa	mm/h	hh:mm
Iruzubieta	19.5	13:30
Mungia	14.6	13:40
Oiartzun	12.8	1:40
Aixola	12.2	13:30
Arteaga	10.6	15:00
Eitzaga	9.4	13:30

- Hilaren 27an, goizaldean, Bizkaia ekialdean sortu zen ekaitz txiki bat ipar/ipar-mendebaldera mugitu zen eta txingorra utzi zuen Ermuan, Zaldibarren, eta batez ere Bermeon; bertan, 20 minutuan 23 mm jaso ziren.
- Hilaren 28an, olatuen altuera adierazgarria 2 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 1.5-2 m inguruko olatuak altxatu zituen, 13-14 segundoko olatuen arteko periodoarekin (Pasaiako portua, 1.78 m 14:00ean ordu lokala).

*Larunbata, hilak 28: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: nabigazioa lehenengo bi milietan 18etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 29an, olatuen altuera adierazgarria 2 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 1.5-2 m inguruko olatuak altxatu zituen, 11-12 segundoko olatuen arteko periodoarekin (Pasaiako portua, 2.06 m 23:00ean ordu lokala).

*Igandea, hilak 29: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html).

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.